

2014. urtean inbertsioa hazi egin zen EAEko ospitaleetan


2014. urteko Ospitale Estatistikaren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) 39 ospitaleko sarea zuen (15 publiko eta 24 pribatu), guztira 7.299 ohez hornituak; horrek esan nahi du 3,4 ohe zeudela 1.000 biztanleko. Oheen % 71 sektore publikokoak ziren. Ospitale motaren arabera, % 72 akutuen ospitaleei dagozkie, % 7 egonaldi ertain eta luzekoei, eta % 21 ospitale psikiatrikoei.

2014an 331.396 ospitaleratze izan ziren; horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta, ospitaleratze kopurua % 2 igo zela. Ospitaleratze horien % 79 sare publikoan izan ziren. Ospitaleratze kopuruaren igoerarekin batera, egonaldi ertain kopuruak behera egin zuen; izan ere, Osakidetzako akutuen ospitaleetako batez besteko egonaldia 4,7 egunekoa izan zen 2014an, eta horrek ekarri zuen % 4ko jaitsiera izatea 2013. urtearekin alderatuta.

Akutuen ospitale publikoetako kanpoko kontsultak % 7 igo ziren 2014an

Akutuen ospitaleetako kanpoko kontsultak asistentzia-jarduera gehien hazi den arloetako bat da. Akutuen ospitaleetan erregistratutako 2.963.364 milioi kontsultek % 4ko igoera izan zuten: % 7 igo ziren ospitale publikoetan; aitzitik, % 11 jaitsi ziren pribatuetan.

1. grafikoa. Akutuen ospitaleetako ospitale barneko kanpo-kontsulta kopuruaren bilakaera, titulartasunaren arabera. EAE 2008 – 2014.



Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

Larrialdi-zerbitzuek 1.123.437 pertsona artatu behar izan zituzten EAEn (aurreko urtean baino ia 20.000 gehiago). 2013. urtean bezala, % 79 ospitale publikoetan artatu ziren.


Aurreko urtearekin alderatuta, ebakuntza kirurgikoak % 1 jaitsi ziren 2014. urtean; kopuru hori % 0,5 igo zen ospitale publikoetan; pribatuetan, aldiz, % 7 jaitsi ziren.

Erditze kopurua ia % 9 igo da Araban

2014. urtean, erditze kopurua, 2013koarekin alderatuta, % 0,2 inguru jaitsi zen. Lurralde historikoen arabera, % 3 jaitsi zen Bizkaian, zertxobait igo zen Gipuzkoan: % 0,2; Araban nabarmen igo zen, erditze kopurua % 9 igo baitzen lurralde historiko horretan. 19.351 erditzeetatik, % 85 ospitale publikoetan artatu ziren. Ospitale publikoetan artatutako erditze kopurua % 1 igo zen; ospitale pribatuetan, aldiz, 2013. urtean baino % 6 gutxiago artatu ziren.

Nabarmendu behar da ospitale pribatuetan artatutako erditzeen kopuruak behera egin badu ere, sare pribatuan 100 erditzetatik egindako zesarea kopurua % 23 igo dela.

2. grafikoa. Zesarea-indizearen bilakaera ehun erditzeko, titulartasunaren arabera. EAE, 2008-2014.




Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

Nekropsia kopurua % 62 jaitsi da ospitale pribatuetan

2014. urtean, ospitale publikoetako nekropsia-indizea 52 izan zen 1.000 heriotzako; aitzitik pribatuetan 3 izan zen 1.000 heriotzako. Gainera, ospitale publikoetan % 3 igo zen nekropsia kopurua; pribatuetan, aldiz, % 62 jaitsi zen.

3. grafikoa. Nekropsia-indizearen bilakaera mila heriotzako, titulartasunaren arabera. EAE, 2008-2014.




Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

Inbertsio-gastua igo egin zen ospitale publikoetan nahiz pribatuetan

2014. urtean, inbertsioa % 19 igo zen. Igoera % 14 izan zen sektore publikoan, eta % 36 sektore pribatuan. Igoera handiena akutuen ospitaleetan izan zen, inbertsioa % 20 igo baitzen ospitale horietan. Guztizko ospitale-gastutik (2.381 milioi euro), 2.326 euro (% 98) ohiko gastuei dagozkie, eta 55 (% 2) inbertsioari.

Ospitale-jarduera euskal BPGaren % 4 izan zen. Biztanle bakoitzeko gastua 1.095 euro izan zen biztanle bakoitzeko, hots, aurreko urtean baino % 1 gehiago. **Gráfico**

4. grafikoa. Inbertsio-gastua, ospitalearen titulartasunaren arabera. EAE, 2005-2014.



Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

1. taula. EAeko ospitaleetako zifra ekonomiko nagusien bilakaera. 2013-2014

Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)	2013			2014			% Igoera		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Gastu arruntak	2.310.919	1.968.904	342.015	2.325.786	1.998.737	327.048	0,6	1,5	-4,4
Inbertsioa	46.017	35.726	10.291	54.744	40.784	13.960	19,0	14,2	35,7
Guztizko gastua	2.356.936	2.004.630	352.306	2.380.529	2.039.521	341.008	1,0	1,7	-3,2
Guztizko sarrera	2.346.062	2.018.037	328.025	2.465.188	2.165.722	299.467	5,1	7,3	-8,7

Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

2. taula. EAEko ospitaleetako zifra nagusien bilakaera. 2013-2014.

		Guztira			Publikoak			Pribatuak		
		Akutuak	Egonaldi ertain-luzekoak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzekoak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzekoak	Psikiatrikoak
Baliabideak										
Oheak	2013	5.273	514	1.594	4.153	377	640	1.120	137	954
	2014	5.225	515	1.559	4.220	377	618	1.005	138	941
	%igoera	-0,91	0,19	-2,20	1,61	0,00	-3,44	-10,27	0,73	-1,36
Laguntza-jarduera										
Sarrerak	2013	312.742	8.677	2.738	243.210	7.407	1.721	69.532	1.270	1.017
	2014	319.853	8.955	2.588	251.684	7.591	1.560	68.169	1.364	1.028
	%igoera	2,27	3,20	-5,48	3,48	2,48	-9,36	-1,96	7,40	1,08
Egonaldiak	2013	1.399.790	163.422	540.786	1.194.456	117.749	208.979	205.334	45.673	331.807
	2014	1.391.428	166.155	541.897	1.192.809	115.821	212.104	198.619	40.334	329.793
	%igoera	-0,60	-4,45	0,21	-0,14	-1,64	1,50	-3,27	-11,69	-0,61
Altak	2013	311.599	9.232	2.828	243.924	7.408	1.721	67.675	1.824	1.107
	2014	321.405	8.904	2.701	252.363	7.591	1.578	69.042	1.313	1.123
	%igoera	3,15	-3,55	-4,49	3,46	2,47	-8,31	2,02	-28,02	1,45
Ospitale barneko kanpo-kontsultak	2013	2.848.521	33.674	31.580	2.366.122	12.948	629	482.399	20.726	30.951
	2014	2.963.364	34.690	36.589	2.531.596	13.765	592	431.768	20.925	35.997
	%igoera	4,03	3,02	15,86	6,99	6,31	-5,88	-10,50	0,96	16,30
Larrialdiak	2013	1.096.221	6.565	855	865.025	6.565	-	231.196	-	855
	2014	1.116.079	6.745	613	882.765	6.745	-	233.314	-	613
	%igoera	1,81	2,74	-28,30	2,05	2,74	-	0,92	-	-28,30
Ebaketak	2013	302.235	-	-	221.840	-	-	80.395	-	-
	2014	298.122	-	-	223.013	-	-	75.109	-	-
	%igoera	-1,36	-	-	0,53	-	-	-6,58	-	-
Erditzeak	2013	19.381	-	-	16.211	-	-	3.170	-	-
	2014	19.351	-	-	16.377	-	-	2.974	-	-
	%igoera	-0,15	-	-	1,02	-	-	-6,18	-	-
Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)										
Guztizko gastua	2013	2.140.041	67.874	149.020	1.848.529	51.894	104.205	291.512	15.980	44.814
	2014	2.165.000	66.306	149.223	1.881.500	52.822	105.199	283.500	13.485	44.023
	%igoera	1,17	-2,31	0,14	1,78	1,79	0,95	-2,75	-15,61	-1,77
Gastu arruntak	2013	2.096.986	67.308	146.624	1.813.828	51.382	103.692	283.157	15.926	42.931
	2014	2.113.328	65.670	146.787	1.841.684	52.387	104.666	271.643	13.284	42.121
	%igoera	0,78	-2,43	0,11	1,54	1,96	0,94	-4,07	-16,59	-1,89
Inbertsioa	2013	43.055	566	2.396	34.701	512	513	8.355	54	1.883
	2014	51.673	636	2.435	39.816	435	533	11.857	201	1.902
	%igoera	20,02	12,37	1,63	14,74	-15,04	3,90	41,92	272,22	1,01
A dierazleak										
Betetze-indizea (%)	2013	72,7	87,1	92,2	78,8	85,6	89,5	50,2	91,3	95,3
	2014	73,0	83,1	95,2	77,4	84,2	94,0	54,1	80,1	96,0
	%igoera	0,41	-4,59	3,25	-1,78	-1,64	5,03	7,77	-12,27	0,73
Batez besteko egonaldia	2013	4,5	17,7	191,2	4,9	15,9	121,4	3,0	25,0	299,7
	2014	4,3	17,5	200,6	4,7	15,3	134,4	2,9	30,7	293,7
	%igoera	-4,44	-1,13	4,92	-4,08	-3,77	10,71	-3,33	22,80	-2,00
Txandakatze-indizea	2013	59,1	18,0	1,8	58,7	19,6	2,7	60,4	13,3	1,2
	2014	61,5	17,3	1,7	59,8	20,1	2,6	68,7	9,5	1,2
	%igoera	4,06	-3,89	-5,56	1,87	2,55	-3,70	13,74	-28,57	0,00
Hilko rtasun gordinaren indizea (%)	2013	2,4	23,4	1,5	2,8	22,1	0,7	1,3	28,7	2,8
	2014	2,4	24,5	1,3	2,6	22,8	0,6	1,5	34,1	2,2
	%igoera	0,00	4,70	-13,33	-7,14	3,17	-14,29	15,38	18,82	-21,43
Nekropsia-indizea (%)	2013	45,5	-	-	50,6	-	-	7,7	-	-
	2014	45,6	-	-	52,2	-	-	2,9	-	-
	%igoera	0,22	-	-	3,16	-	-	-62,34	-	-
Zesarea-indizea (%)	2013	15,2	-	-	13,1	-	-	25,9	-	-
	2014	16,3	-	-	13,5	-	-	31,9	-	-
	%igoera	7,24	-	-	3,05	-	-	23,17	-	-
Larrialdietako presioa (%)	2013	47,2	55,8	8,3	54,5	65,4	1,2	21,7	-	20,4
	2014	47,2	55,8	8,4	54,1	65,8	0,3	21,8	-	20,7
	%igoera	0,00	0,00	1,20	-0,73	0,61	-75,00	0,46	-	1,47
Ospitalerazteak eragiten dituzten larrialdiak (%)	2013	12,8	67,8	24,2	14,5	67,8	-	6,3	-	24,2
	2014	12,8	68,1	34,7	14,5	68,1	-	6,2	-	34,7
	%igoera	0,00	0,44	43,39	0,00	0,44	-	-1,59	-	43,39

Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

Ohar metodologikoa:

- 2013. urtetik aurrera, ospitale publikoei buruzko informazioa Osakidetzaren erakunde zentraleko informazio-zerbitzuetatik dator, baina aurretik informazio hori zuzenean jasotzen da ospitale bakoitzetik.
- Sektore publikoko ekonomia-jarduerari dagokionez, 2013. urtetik aurrera hasi dira aurreko urteetan aintzat hartzen ez ziren bi partida sartzen. Partida horietako bat amortizazio-gastuari buruzkoa da (diru-sarreraren kontuan duten kontrapartidarekin) eta bestea Osakidetzaren inbertsio estrategikoei buruzkoa.